

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko apirilaren 17a. IX. urtea. 2.392. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



I. GARCIALANOA

→ **Errepublikari omenaldia.** Herritarrek osatutako Foro Errepublikarrak deituta, ekitaldia egin berri dute, Eibarren orain 81 urte errepublika aldarrikatu zen egunean. Horretarako, Tolosako hilerrian dagoen frankismoaren biktimen oroigarrian elkartu dira, eta, besteak beste, hirugarren errepublika ezartzea eskatu dute. Lore eskaintza egin dute oroigarrian, eta ekitaldian ikurrinak eta bandera errerepublikarrak erakutsi dituzte. Horez gain, Foro Errepublikarrak sinadurak bildu ditu hirugarren errepublikaren aldeko mozio bat aurkezteko asmoz. ◊ 5

Zero Zabor astea antolatu dute eskualdean, hainbat ekitaldirekin

Hondakinei buruzko informazio «garbia» zabaldu nahi dute; Asteasun 'Etokizuna erraustuz' bideo saioa emango dute, gaur ◊ 2

Olazabal eta Jaunarena, nor baino nor bigarren mailako finalean

Pilotari aresoarrak Larrinaga izango du ondoan, eta leitzarrak, berriz, Cecilio; Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dute norgehiagoka hilaren 28an ◊ 6

Mahala Triatloi Taldeko Maialen Muñoz, duatloi txapelketako garaile

23 urtez azpikoen Euskal Herri mailako lehiaketa irabazi du ibartarrak, Gernikan; Iñigo Aseginozalak 49. egin zuen ◊ 6



**+Visión
eta barre
egin eskaintzei**

armazoaia + kristalak

29€ tik hasita

Gente con
+ VISIÓN

El fin de las gafas caras

Gutxieneko prezioa bermatuta bilduma, kristal eta tratamendu guztietan. Eskaintzarik eta letra txikirik gabe.

masvision.es

Moto bira antolatu du Langostino moto elkarteak hilaren 29rako

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Langostino moto elkarteak bira antolatu du datorren iganderako, hilaren 29rako. Ibarrrako Erre-Berri dendatik irten go dira 09:30ean, eta Tolosarantz abiatuko dira. Andoain, Lasarte, Uzurbil, Orio, Zarautz eta Zumaia-iatik igaroko dira, eta Itziarren geldialdia egingo dute hamaiketako egiteko. Deba, Las- tur, Madariaga auzoa, Azkarate, Azkoitia, Azpeitia, Urraki edo Errezil, Tolosa zeharkatu, eta Ibar- rran bukatuko dute. Bazkaria Xep- la elkartearen egingo dute.

Hamaiketako nahi duenak 7 euro ordaindu beharko du, eta bazkarirako, berriz, 16 euro. Izena langostinomotofesta@gmail.com helbidean eman behar da.

Enjoy English ekimenari buruz informazioa emateko hitzaldia, bihar

I. Terradillos Ibarra

Pasa den urtean bezala, aurten ere, Uzturpe ikastolak Udalare- kin batera antolatzen duen uztaile- ko udaleku irekien barruan, Oporretan Euskaraz izeneko pro- gramaz gain, Enjoy English izene- koa ere garatu nahi du.

Bada, ikastolen elkartearen laguntza antolatzen duen ekime- nari buruz zehaztapen gehiago jaso nahi duenak, bihar izango du horretarako aukera. Izan ere, Ibar- rako Benito Izagirre Kultur Etxean bilera egingo dute progra- maren inguruko informazioa emateko eta zalantzak argitzeko, bihar, 17:00etan hasita.

oibarralde@hitza.info



Konpostajearen inguruko hitzaldiaren hasi da Zero Zabor astea. HITZA

Hondakinei buruzko informazio «garbia» zabalduko dute

Hamaika ekitaldi izango dira aste honetan eskualdeko herri askotan, Zero Zabor astearen barruan

Iñigo Terradillos

Tolosaldea Zero Zabor taldeak antolatuta, Zero Zabor astea egingo dute igandera bitarte, Alegian, Anoetan, Asteasun, Iruran, Li- zartzan, Tolosan, Villabonan eta Zizurkilan. Atzo hasi zen Anoetan, konpostaje-ari buruzko hitzaldiarekin, eta ikus-entzunez- koek, bazkariak edota bizikleta martxak osatuko dute egitaraua.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, orain arte zaborraren gaia «ezkutuan» egon da, eta egun «denen ahotan dagoenez, eta informazio eza nabari denez, informazio garbia eman nahi dugu, herritarren dudak, kezkek eta galderak argitze aldera».

Ekitaldien artean, larunbateko bazkaria nabarmendu daiteke. Izena ematea amasavillabonaz@gmail.com edota zizurkilzz@gmail.com helbideetan edota 634 423 036 zenbakian egin daiteke, 15 euroren truke, etzi bai- no lehen.

↓ Egitaraua

ASTEASU

Apirilak 17, asteartea.

■ 19:00: *Etorbizuna* erraustuz bideo emanaldia, udaletxeko ikus-entzunezko aretoan.

TOLOSA

Apirilak 18, asteazkena.

■ 19:30: Bilera informatiboa eta parte hartzailea izango da kul- tur etxean.

IRURA

Apirilak 19, osteguna.

■ 19:00: Irurako ZZ taldearen aurkezpena eta GZZen hitzal- dia.

LIZARTZA

Apirilak 20, ostirala.

■ 20:00: Muralaren margoketa, herriko plazan.

VILLABONA-ZIZURKIL

Apirilak 21, larunbata.

Zero Zabor eguna:

■ 11:00: Haur jolasak.
■ Ondoren: Trikipoteoa.
■ 14:00: Bazkaria.
■ Ondoren: Trikibertsopoteoa.
■ 23:00: Laketa musika taldearen kontzertua.

ALEGIA-ASTEASU

Apirilak 22, igandea.

Bizikleta martxa:

■ 11:00: Martxaren hasiera Ale- giako plazan.
■ 11:30: Tolosako Trianguloa plazan.
■ 11:45: Anoetako plazan.
■ 12:00: Villabonako plazan.
■ 12:30: Trikitixa eta hamaiketa- koa, Asteasuko plazan.

Armiarmak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Beldur handia ematen du- ten zomorroak dira ar- miarmak, zortzi hanka dituzte, zenbait iletsuak dira eta guztiak dira oso ehiztari onak, beraz normala da beldur apur bat ematea. Hala ere, Euskal Herri- an topa dezakegun armiarmar- rik handienak zentimetro gutxi neurtzen ditu, eta zorionez, ez dugu gizakiarentzat pozoin kal- tegarria duen armiarmarik.

Intsektuen antza duten arren, ez dira intsektuak, araknidoak baizik. Mila aldiz zutabe hone- tan esan dugun bezala, intsektuek sei hanka dituzte, araknidoek zortzi. Araknidoen taldean, armiarmez gain, besteak beste, eskorpioiak eta alergía ematen diguten akaro famatuak biltzen dira. Armiarmek buru, gorpuz eta ipurdi bana dituzte, baina buru eta gorpuzta oso lotuta daude eta ez dira erraz ezberdin- tzen. Ipurdia bai ordea; oso ipur- di nabarmena dute. Ipurdian baitaude barne atal guztiak. Bai- ta hain beharrezkoak duten sarea egiteko atalak ere.

Animali guztietan bezala, ar- miarmak arrak eta emeak dira, Arrak nahiko xelebreak dira, ez baitute zakilik. Zakilaren orde- z, buru aurrean palpo izena duten bi hankatxo motz eta lodituzte, hankatxo horiek oso sentiko- rrak izateaz gain, zakutxo bat- zuetan esperma gordetzen dute.

Zakil gabeko armiarma arrek, nahiko ugalketa traumatikoa izaten dute, espermaz betetako zakutxo hauek emearen bar- ruan ipini behar baitituzte, eta zoritxarrez, emea arra baino handiagoa izan ohi da. Zakutxo hauek emearen barruan sartze- ko metodo bat, emea janari apur batekin entretenitu ostean, ziztu bizian emearen ugalketa- ra iritsi, juxtu ipurdiaren atzean, eta zakutxoaren barruan sartzea da. Gero, irrintzi bat bota eta ahal den azkarren alde egitea komeni da emearen hanka artetik, eme- aren bazkari bihurtu baino le- hen... Zorionekoak armiarmak ez diren animalia arrak!

Espezieko emea ez bada oso handia, arraren ugalketa ez da hain arrisksua. Kasu honetan arrak bere *sex-appeala* erabilzen du emea ligatzeko. Aurrez, es- perma zakutxoaren lurreen uzten du, gero emearengana hurbildu,

aurreko hankak laztandu eta leunki zakutxoaren gainean era- maten du emea, zakua emearen barrura sartuz. Esan behar da, edozein unetan arrak ez badu emea konbentzitzen, heldu eta akabatu egiten duela eta beste egokiago batengana joango dela. Nere lagun handi batek esaten duen bezala: «Bizie gorra ek!»

Nahiko erraza da armiarma arra eta emea bereiztea, esan be- zala emeak handiagoak dira eta ipurdi puztuagoa dute. Arrak txikiagoak izateaz gain, buru au- rreko palpoetan dauden esper- ma zakutxoak ikusi ahal dira, kolore ilunekoak eta borobil for- marekin.

Sarea da armiarmak bereizte- ko beste ezaugarri bat, baina ar- miarma guztiek ez dute sarea egiten. Batzuk, lehoiak edo mar- rrazoak bezala, ehiztari aktiboak dira. Beraien harrapakina atzeman, aurkitu, zelatatu eta harrapatu egiten dute, armiarmota hauek oso begi handiak dituzte, ikusmen bikaina dute eta harrapakinaren gainera sal- to egiteko gai dira. Gurean badi- tugu hauetako batzuk, oso txi- kiak dira, armiarma hauei au- rrez aurre begira ipintzen bagara lau begi handi ikusiko dizkiegu buru aurrean eta hauek inguratuz, beste lau begi txikiago. Zortzi begiek ez da harriztekoa bista ona izateak!

Sarea egiten duten armiarmak ehiztari pasiboko dira, sare itsaskorra eraikitzen dute eta bi- zidun hegalaria bat erori arte itxa- roten dute. Armiarma hauek ez dute bista oso ona, baina hanka luze eta oso sentikorrek dituzte, sarean egiten den edozein mugimendu atzemateko.

Hala ere, badaude beste modu batera ehizatzen duten armiarmak, saregileak eta ehiztari akti- boak direnak aldi berean. Hauek etxetxo bat egiten dute, lurpean edo paretaren zuloan, etxearen barrualdea sare eroso bate- kin apaintzen dute eta etxetxoaren atarian, sare oso sentikor- baten alfombra bat ipintzen dute. Bere biktimak «ongi etorri» ipin- tzen dion alfombra hau zapaltzen duenean, etxetxoan dagoen ar- miarmak atzeman egiten du, etxetik ziztu bizian ateratzen da eta bere gonbidatua etxean sar- tzen du, baina ez kafetxo batera gonbidatzeko.

Armiarmek beste lauzpabost zutabe idazteko adinak sekre- tuak dituzte, baina zoritxarrez zutabe xume hau bi astekoa eta orri erdikoa da. Armiarmez gehiago jakin nahi izanez gero bisitatu bioaniztasunetik@hotmail.com edo idatzi lasai bioaniztasunetik@hotmail.com-era, eta gaine- ra Facebook eta Twitter-en ere bagaude eta youtube-n kanal bat ere badugu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ostiral honetan hasiko da udaberriko egitaraua, Xabier Zeberio eta Pello Ramirezen emanaldiarekin

Itzea Urkizu

Leidor aretoko oholtzak artearen diziplina guztiak bilduko ditu datozen hilabeteotan, Tolosako Udalak aurkeztu berri duen udaberriko egitarauarekin. Ostiral honetan bertan hasiko da, Xabier Zeberio eta Pello Ramirezen emanaldiarekin.

Musikak bere lekua izango du, eta besteak beste, Maria Dolores Pradera abeslaria izango da Tolosan. Antzerkia nahiz dantza ere nabarmenduko dira, ekainera bitarte, Tolosako kultur jardunean. Izan ere, Leidorren *Wilt* eta *Lotsa gaber*en gisako euskarazko obrak ikusgai izango dira, eta Topic aretoan *Liburuzaina estu eta larri* edo *Titirijuegos*.

Dantzak, berriz, kutsu garaiki-dea izango da, Aukeraren eta Alurren emanaldiekin. Umoreak ere izango du bere tarte, leo Harlem aktorearen bakarriketa saioarekin.



Aukeran dantza konpainiak datorren maiatzaren 11n eskainiko du *Burnia* ikuskizuna, Leidor aretoan. HITZA

Arte adierazpen guztiak dute tarte Tolosako udaberriko egitarauan

↓ Udaberriko kultur egitaraua Tolosan

APIRILAK 20, OSTIRALA

■ **20:30.** Xabier Zeberio eta Pello Ramirezen kontzertua Topic aretoan. Beren lan berria aurkeztuko dute.

APIRILAK 21, LARUNBATA

■ **18:30.** *Liburuzaina estu eta larri*, Gus marionetas, Topic-en.

APIRILAK 27, OSTIRALA

■ **20:30.** *Wilt*, Ados antzerki konpainia, Leidor aretoan.

MAIATZAK 4, OSTIRALA

■ **20:30.** *Lotsa gabe*, Vaiven antzerki konpainia, Leidor aretoan.

MAIATZAK 11, OSTIRALA

■ **20:30.** *Burnia*, Aukeran dantza konpainia, Leidor aretoan.

MAIATZAK 12, LARUNBATA

■ **18:30.** El Retablo taldearen *Pinocho y Medio*, Topic aretoan.

■ **22:00.** Bertso saioa, Leidor aretoan.

MAIATZAK 20, IGANDEA

■ **12:00.** Euskadiko Ikasleen Orkestraren kontzertua, Leidor aretoan.

MAIATZAK 25, OSTIRALA

■ **20:30.** Alurr dantza taldearen *Iznanak dira*, 1512 ikuskizun berria, Leidor aretoan.

MAIATZAK 27, IGANDEA

■ **12:00.** Udaberri dantza taldeko ikastaroetako ikasleen eta Lask abesbatzaren emanaldia, Leidor aretoan.

EKAINAK 1, OSTIRALA

■ **20:30.** Maria Dolores Pradera abeslaria, Leidor aretoan.

EKAINAK 9, LARUNBATA

■ **18:30.** *Titirijuegos*, Los duendes taldea, Topic aretoan.

EKAINAK 15, OSTIRALA

■ **20:30.** Kultur etxeko antzerki tailerreko kideen emanaldia, Leidor aretoan.

EKAINAK 16, LARUNBATA

■ **19:30.** Leo Harlem umoristaren bakarriketa, Leidorren.

EKAINAK 17, IGANDEA

■ **12:00.** Kultur etxeko dantza tailerreko kideen emanaldia, Leidor aretoan.

EKAINAK 22, OSTIRALA

■ Izasku Arriolaren eskolako kideen jaia, Leidor aretoan.

BESTELAKOAK

■ **Apirilaren 20tik maiatzaren 19ra.** Arantza Munitaren *Hasieraren amaiera* erakusketa, Aranburun.

■ **Apirilaren 23a.** Liburuaren egunaren harira, *Bookcrossing*, Aranburu liburutegian.

■ **Apirilaren 23tik 27ra.** Naturaldia.

■ **Apirilaren 28tik 30era.** Gipuzkoa Encounter, Usabal kiroldegian.

■ **Maiatzaren 4tik ekainaren 9ra.** Nazio baterako mapa, Aranburun.

■ **Maiatzaren 5a.** Udaberri dantza taldearen eta Esbart Sant-Marti taldearen arteko elkartrukea.

■ **Maiatzaren 6a.** *Oriako barandila* ballet erakustaldia.

■ **Maiatzaren 11tik 13ra.** Tolosako Olatu talka.

■ **Maiatzaren 18a.** Museoen gau zuria.

■ **Maiatzaren 19a.**

Txapin festa.

■ **Maiatzaren 24tik ekainaren 16ra.** Emarock, Aranburun.

■ **Maiatzaren 26a.** Nafarroaren eguna.

■ **Maiatzaren 26tik ekainaren 3ra.** Musikaria astea.

■ **Ekainaren 1etik 3ra.** Artisautza azoka.

■ **Ekainaren 2tik 10era.** Tolosa Berdez.

■ **Ekainaren 3a.** Alardea.

■ **Ekainaren 16a.** Sanjoanetako azoka berezia.

■ **Ekainaren 17ra bitarte.** *Gelede masks* erakusketa, Topic aretoan.

■ **Ekainaren 22tik uztailaren 7ra.** Kultur etxeko tailerrak.

Bertako informazioari, bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun apirilaren 3tik ekainaren 1era, eta jaso

Ekain sagardoa
6 botilako kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean

Leketioko Metrokua hotelean, **bi pertsonarentzako** asteburu baterako egonaldia **ZOKATUKO DUGU**

Harremanetarako: 902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Asteasu



GAZTETXEA, MARTXAN

Asteasuko Gazte Asanbladak bere gaztetxearen inaugurazioa egin du. Mus trapeketa, trikopoteoa, afaria (70 lagun inguru elkartu ziren) eta kontzertua antolatuta zituzten.

Tolosa



EZTABAIDAGUNE BEREZIA

Auzeslume egitasmoari bukaera eman zioten aurreko astean, besteak beste. Zabalduan Antzerkian buruzko talerarekin, Tolosako kultur etxean eztabaidagune berezia ireki dugu, lengoia desberdinen artean gure errealitatearen inguruan hausnarketa egiteko, azaldu dute talerako arduradunak. «Hezkuntza eta gizarte honetako balore nagusiak aldatzeko beharri buruzko eztabaida izan genuen», azaldu dute.

Aurten noraino?

Aurten 1.100 aurrera

Ibarra



'IZANAK DIRAU, 1512' ESTREINATU DUTE

Alurr dantza eskolako gazteek Lasarteko Marueta Lekuona kultur etxean egin zuten izanak dirau, 1512 ikusizkoz berriaren aurkezpena, joan den larunbatean. Naifarioko historia dantzaen bidez kontatzen duen ikusizkuna da. Lasarten, Kukuka dantza eta antzerki eskolak X. urteurrena ospatu zuten larunbatean, eta horren harira egin zuten emanakia Alurek. Atzo, berriz, iparraldiera abiatu ziren dantzaritzak Salgoniko kultur etxetara ekitaldiaren parte hartza. Alurr dantza taldeak azaldu dutenez, dantzariek etxaldea zaparrada ederra jaso zuten bi tokietan.

Alegia



HERRIRA AURKEZTU DUTE ALEGIAN

Herrira mugimendua aurkezpena egin berri dute Alegian. Besteak beste, bideo bat ikusi dute, udal txekio areto nagusian. Herritaren aurkezpen gisara, eta bertan 30 pertsona inguru izan ziren. Mugimendua aurkezpena egiteaz gain, aurrezantzean ere «euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan aktibatzeko» deia egin zuten. Aurkezpen ekitaldia amaitzeko, maiatzaren 19ko Goazen Plazara ekimena aurkeztu zuten eta horrekin lotuta, Berastegin lortutako «Pa» hizkari segika «L» hitza osatu zuten. «Ea Plazara hitza osatzea lortzen duguni», gaineratu dute Herrira mugimendutik.

Tolosan etxe adostasua segai: eguraldiaz, lau gela, bi bainugelak, koturua, egongela, jangela, hondoa, sukaldea, bi autoentzako garajea, tokioa, zindioa eta frotoak.

Informazioak, galdak:
616 251657
 telefono berria.

Hirugarren errepublika aldarrikatu dute Tolosan

Foro Errepublikarrak deituta, frankismoaren biktimen oroigarrian hainbat herritar elkartu dira.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Foro Errepublikarrak deituta, larunbatean ekitaldia egin zuten Tolosako hilerrian, Elbarren errepublika aldarrikatu zela 81 urte betetzen zirela eta. Frankismoaren biktimen omenez jarritako oroigarrian egin zuten ekitaldia, eurpean. Garbibe Biurruak eta Jesus Mari Penillak hitz egin zuten, eta besteak beste, hirugarren errepublika aldarrikatu zuten. Sarreko aurkezpenaren eta aldarrikapenaren ondoren, oroigarrian lore eskaintza egin zuten, eta lehenengo Bot Inarte Tolosako alkatea izan zen. Ondoren zenbait herritarrek utzi zituzten loreak oroigarriaren aurrean. Guztira 30 pertsona inguru elkartu ziren, larunbat zehar baita aldarrikatuko kideak.

Oroigarrian eginko ekitaldia eta gero, Triangeluko plazan izan ziren Foro Errepublikararen kideak banderak eta pinak salduz, eta hirugarren errepublika aldarrikatzeko monitoi aurkezteko sinatuak bildu zituzten. Egunko ekitaldiekin amaitzeko, bazkaltzoko bildu ziren Fronton jate txetan.



Errepublikari aldarrikatzeko ekitaldian, lore eskaintza egin zuten frankismoaren biktimen oroigarrian.

Are gehiago aseguratu.

Aseguratu* zure etxea eta bizia Kutxabankekin eta jarraitu gehitzen: lasaitasun gehiago, erosotasun gehiago, erosotasun gehiago, deskontu gehiago.

Dantza eta kulturari buruzko hitzak, berriak eta besteak gehiago: [www.kutxa.es](#)

kutxa
 hitz egiten

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA

BIGARREN MAILAKO BINA KAKO TXAPELKETA

| | |
|----------------------|----|
| Jaunarena-Cecilio | 22 |
| Urrutikoetxea-Zabala | 20 |
| Olazabal-Larrinaga | 22 |
| Rico IV-Untoria | 17 |

Ligaxkako sailkapena

| | |
|-----------------------|-----|
| 1. Jaunarena-Cecilio | 3-0 |
| 2. Olazabal-Larrinaga | 2-1 |

Finala, hilaren 28an

Jaunarena-Cecilio
Olazabal-Larrinaga

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA 23. jardunaldia

| | |
|-------------------|-----|
| Laskorain-Sala 10 | 7-7 |
|-------------------|-----|

Sailkapena

| | |
|---------------|-----|
| 1. Pinseque | 48p |
| 2. Ebrosala | 48p |
| 3. Zierbana | 43p |
| 13. Laskorain | 16p |

Hurrengo jardunaldia

Alcañiz-Laskorain

HIRUGARREN MAILA 25. jardunaldia

| | |
|--------------|-----|
| Ibarra-Bilbo | 3-1 |
|--------------|-----|

Sailkapena

| | |
|--------------------|-----|
| 1. Ibarra | 66p |
| 2. Sestao | 59p |
| 3. Aurrera Vitoria | 53p |

Hurrengo jardunaldia

Ibarra-Sestao

SASKIBALOA

LEHEN MAILA 13. jardunaldia

| | |
|----------------|----|
| Padura | 73 |
| Bidebide Ibiza | 86 |

Sailkapena

| | |
|-------------------|------|
| 1. Santurtzi | 10-3 |
| 2. Zarautz | 8-5 |
| 3. Bidebide Ibiza | 7-6 |

DUATLOIA

23 URTE AZPIKOEN EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA Gernikako XVII. Nazioarteko proba

Sailkapena

| |
|------------------|
| 1. Maialen Muñoz |
|------------------|

Maialen Muñoz ibartarrak irabazi du Euskal Herriko duatloi txapelketa

Iñigo Aseginolazak 49. postua eskuratu zuen Gernikan, datozen probei begira sasoiari dagoela erakutsiz

tenduz. Horrela, 23 urtez azpiko mailan Euskal Herriko txapelaldun geratu zen, eta maila nagusiko sailkapenean, 13. postuan helmugaratzea lortu zuen.

Eguraldiak ez zuen proba errazterakoan lagundu, ondorioz, euriak lasterketa gehiago gogortu zuen. Maialen Muñozen kaltetako izan zen hau guztia, bizikleta gainean zihoala, erorkikoa izan baitzuen zoru bustiaren ondorioz. Bertan galdu zuen denborak, sailkapen orokorrean lehen hamarren artean sartzea eragotzi zion.

Gernikako probaren ondoren, Euskal Herriko Duatloi Zirkuituko sailkapen nagusian laugarren postuan dago Maialen Muñoz, eta 23 urtez azpikoetan jada zirkuitua irabazita duela esan daiteke, bigarren sailkatuari puntu sorta zabalaz ateratzen baitzikio.

Ibartarra, emaitza paregabeak lortzen ari da bere lehen denboraldi honetan.

Mutiletan Mahala TTT-ko Iñigo Aseginolazak parte hartu zuen Gernikako XVII. Nazioarteko Duatloian, eta lasterketa txukuna egin ondoren, 49. postuan sailkatu zuen, datozen probei begira sasoiari dagoela erakutsiz.



Maialen Muñoz ibartarra Gernikako duatloian, larunbatean. HITZA

Bigarren mailako txapela Leitzaldera joango da

Jon Jaunarena eta Mikel Olazabalek jokatu dute binakako pilota txapelketaren finala, hilaren 28an, Labriten

zala, bigarren mailako eskualdeko ordezkariak egongo dira: Jon Jaunarena leitzarra eta Mikel Olazabal aresoarra.

Leitzaldeko bi pilotariak elkarrekin aurka ariko direnez, txapela eskualdera joango da. Leitzarrenekin bikotea osatuz, Cecilio irtingo da kantzara, eta aresoarrekin Larrinaga. Finala hilaren 28an, larunbatean, jokatuko da Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Txapelketa honetan elkarrekin aurka jokatzen duten hirugarren aldian izango da Labritekoa. Au-

rez jokatutako partidetan, Jaunarena-Cecilio jaun eta jabe izan dira, 6an eta 8an utzi baitzituzten Olazabal eta Larrinaga.

Txapelketako lehen fasean, ligaxkan, aresoarrak bederatzigarraipen lortu zituen bere bikotekidearekin, lehen postuan amaituz. Jaunarena eta Cecilio bigarren amaitu zuten, zortzi garaipenekin. Finalerdietako ligaxkan, Olazabal-Larrinaga gelditu ziren bigarren, bi garaipen eta porrot batekin. Jokatutako partida guztiak, hau da, hirurak irabazita le-

hen postuan gelditu direnak, Jaunarena-Cecilio izan dira.

Partida erabakigarria

Finalerdietako ligaxkaren azken jardunaldia jokatutako aurretik, Jaunarenak finalerako txartela eskuan zuen. Hil ala biziko partida jokatzea Olazabali tokatu zitzaion. Larrinagarekin batera, Rico IV-Untoriaren aurka aritu behar zuen aresoarrak. Irabazteak finalera igarotzen ziren, eta partida gogor baten ostean, galtaileak 17an gelditu ziren.

Hilberriak eta urteurrenak

GREGORIO IZAGIRRE INTXAUSTI
 Alzo hil zen, 89 urte zituela,
 Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikazioa hartu ondoren.
 - Golan bego -

Emaztea: Iñaki Lasa; seme-alabak: Iñaki eta Lurbi Gonzalez; anai-arrebak: Isabel (†), Juan eta Miren Ebeberri, Patxi eta Rafaela Telleria, Joakin eta Joakina Alustiza, Faustino eta Mª Victoria Ayestaran, Mª Teresa eta Jose Urbizu, Prontxo (†) eta Iñaki Sarriegi; ezkon anai-arrebak: Joakina (†) eta Ramon (†), Isabel eta Eduardo (†), Maria eta Iñaxio (†), Antoni eta Martin (†), Miren eta Jose, Miguel eta Joxepa, Santi eta Mª Angeles; 100ak; lehengusua eta gainerako ahaldeak.

Amen eskatzen dizuzte otoitz bat haren arimaren alde, eta amen etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, ARRATZALDEKO ZAZPIETAN, Segunako Andre Mari Jasokundearen paroki elizan, gorpua aurrean dela, egingo den hileta-elizkinera. Alder aurretik, mila esker.

Hilberria: Aizeta Erdizaria.
 Oinarri: Corcuera Berruaga Osoan (arabak) ere egongo da.
 Segun, 2012ko apirilaren 17a.

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Mikel Lopetegi: «Oso gustura gaude aurten lortu dugunarekin»

Mikel Lopetegi eta Borja Martin jubenil mailako Realean ari dira; Ohorezkoan bere multzoko lehena izan da

Eneritz Maiz

Jubenil mailako Real OHorezko Mailako txapelketan bere multzoko lehen postuan gelditu da. Logroñoako Valvanera taldearen aurka 0-3 irabazi zuen partida, igandean. Tolosako Mikel Lopetegi eta Villabonako Borja Martin futbolariak daude taldean.

Mikel Lopetegiren hitzetan, «oso gustura gaude lortu dugunarekin. Atzo-igandean-Logroñoan bertan osatu genuen garaipena». Denboraldia hasi zutenean, ez zuten imajinatu ere egingo amaieran garaipena eskuratuko zutenik ere. «Egia esan denboraldi hasiera ez genuen batere on

izan», dio Lopetegik. «Gora behera asko izan genituen taldean, baina denbora pasa ahala giroa hobetzen joan zen, eta taldeko giroa hobetzearekin batera emaitzak onak izaten hasi ginen», gaineratu du tolosar gazteak. Taldeak gora egitearekin batera, Realeko jubenilek esperantza puntu bat zuten garaipena eskuratzeko.

Lehen postua lortzeko, beharrezkoa zuten igandean garaipena eskuratzea. Eta futbolariak lanak ongi egin zituzten. Iñigo Agirrezabala tolosarra taldeko bigarren entrenatzailea da. Mikel Lopetegik gaineratu duenez, «oso harreman ona dugu eta biok herriarrak izanda, oso ondo moldatzen gara. Atzo-igandean-gustura osatu genuela esan daiteke».

Entrenamenduekin jarraituko du Realak. Izan ere, jarraian Txapelaldun Kopa eta Errege Kopa jokatu dituzte, beste multzoko txapelaldun aurka.

Laskorain taldeak 7-7 berdindu du aragoitarren aurka, etxean

Aste honetan Alcañiz taldearen aurka jokatuko dute; mailari eusteko borrokarekin jarraituko dute

Gorka Amatriain Tolosa

2011-2012 denboraldi honi amaiera emateko hilabete eskas gelditzen den unean, garai gogorrak bizitzen ari den Laskorainek, Agrupación Deportiva Sala 10 talde aragoitarren bisita jaso zuen joan den larunbat arratsaldean Usabalgo polikiroldegian.

Hasiera batean, garaipen garrantzitsu bat lortzeko itxaropenean, agertokiak eskainitako baldintzek itxura aproposa erakusten zuten. Maila ertaineko arerioa, sailkapeneko erosotasunaren babespean nahastua eta benetako beharra zuen Laskorain baten kantxara jausitakoa

Zaragozatik egindako bidai luze baten ondoren. Zorteak dena den ez du aurtengoan ikastolakoan etxean oparirik utzi oraindik, eta irabazita zegoen neurketak azken segundotetan ihes egin zuen beste behin.

Telleriak egindako 1-0-ekoari berehala eman zioten buelta kanpotarrek baina Murgik eta Ekhi gol banarekin 3-2-koa ipini zuten markagailuan lehen zati parekatu eta fin batean. Aldageletatik bueltan 4-2-koa igo zen horitxoan aldean jokaldi nahastu bat aragoitarrek bere atean sartu ondoren. Sala 10-ekoak arratsalde pasa etorri ez zirenez atezain jokalariren taktikarekin berdinketaren bi golak egin zituzten 4-4-koa ipiniaz. Etxekoaren erantzuna berehala etorriko zen Gilek birritan eta Landerrek 7-4-ko ia erabakigarri bat igoaz elektronikora. 6 minutu luze oraindik aurretik eta Zaragozakoek berriro atezain jokalariren taktikaren bitartez bi gol egin

eta azken minutu trabatu baten ostean 2 segundoren faltan 7-7-koaren sareratzea iritsi zen. Irabazita zirudien beste neurketa batek azken unean ihes egin du berriro eta tolosarrik amildegiaren erretzean utzi joan den larunbateko berdinketak.

Partiduko protagonista nagusia Aratz atezaina izan genuen ez bairrik gabe, Endikaren lesioa dela eta neurketa osoa jokatu zuen lehen aldiz aurtengoan, ez alferrik, izugarrizko maila eman baitzuen, 40 minutuetan zehar harmailaketa zaletuen txaloak eraginez behin eta berri.

Datorren astean Alcañiz taldea bisitatuko dute laskoraindarrek, mailari eusteko borrokari ekiteko asmoz eta gelditzen diren aukerak mantentzeko esperantzan.

Larunbatean Usabalen Javi delegatua, Alonso coach manager-a, Aratz, Gil, Murgi, Lander, Loitzun, Telleria, Belloso, Ekhi, Etxebe eta Saralegi izan ziren.

Citadellesko traila irabazi du Iker Karrerak

Garaipena eskuratuz hasi du denboraldia Iker Karrera amezketarrak; 73 kilometroko lasterketa egin du

Erredakzioa Amezketa

Iraupen luzeko trailak hasi dira. Denboraldiko lehenengo lasterketako bat jokatu zen duela bi aste, Citadelleseko traila (Frantzia), eta bertan parte hartu zuen Iker Karrera amezketarrak. Lan dotorea egin zuen, eta iaz bezala, Karrerak berri ere irabazi zuen traila.

73 kilometroko ibilbidea izan zuten korrikalariak, eta 3.200 me-

troko goranzko aldapa metatua. Lasterketaren berezko gogortasuna eguraldiak areagotu egin zuen: eurria eta hotza izan zituzten bidelagun lasterkariak. Hasieratik, lehia estua izan zuten Iker Karrerak eta Maxim Cazajousek. Karrerak 6 ordu eta 55 minutuan osatu zuen ibilbidea: «Borroka handia egin dugu irabazteko. Eurria etenik gabe egin du, eta lokatz asko pilatu da ibilbidean». Helmugan, Karreraren atzetik, Julian Chorier sartu zen Cazajouse-ni aurre hartuta.

Iazko denboraldia bikaina izan zuten amezketarrentzat. Aurten go helburuen artean, Transvulcania, Lavaredo, UTMB, Hiru Handiak eta Grand Raid Isla Reunión ditu.

Saralegik ez du lortu hurrengo kanporaketarako txartela

Aizkolari leitzarra Urrezko Aizkorako lehiaketatik kanpo geratu da; Rodriguezen I.a eta Zubiaga pasa dira

Erredakzioa

Zerainean jokatu zen Urrezko Aizkorako kanporaketa. Parte hartzaileen artean izan zen Eneko Saralegi leitzarra, baina azken saioan ez zuen lortu aurrera egiteko txartela.

Lau multzotan banatuta lehiatu ziren aizkolariak, eta lehen fasean ezustekoa eman zuen leitzarrek eta multzoko onena izan zen. Bigarren zatian, Mugertza III.ari irabazi zion, baina finalak erabakitzeke kanporaketetan Kaña-



Otaegi eta Mujika Binanako txapelketan, Azpeitian. HITZA

mares III.ak eta Rodriguezen I.ak mendean hartu zuten Saralegi. Honela, Rodriguezen I.a eta Zubiaga pasa dira aurrera.

Atzo, Zumaian

Urrezko Aizkorako kanporaketa atzo izan zen Zumaian, izen handiko aizkolariak: Otaegi, Muji-

ka, Erasun, Mugertza II.a, Senosiain I.a eta Larrañaga ziren lehiatzeak.

Proba azkarrak egin zituzten, eta hurrengo faserako bi txartel izan ziren jokoan, baina egunkariaren edizioa itxita zegoen kanporaketako emaitzak jakiterako.

• tolosaldea@hitza.info



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du



LAGUN ARO GBC
Fiact Mutua Juventut
saskibaloi partida

Apirilak 22
Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunber



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat 2 **sarrera pare** ditu

RALLYESPRESSO

Apirilak 21 • Larunbata
Irteera: 15:00etan
Alegiatik Amezketa



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

- **Villabona.** Floren Aoizek *1512ko galera eta ondorioa* hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30ean, Mintzolan, Aritza kultur elkarteak antolatuta eta udalak lagunduta.
- **Ibarra.** Herritarrak atzo hasi ziren TAO txartelak eskatzen. Udalak jakinarazi duenez, bizilagunek informazioa eta eskaera egiteko orria jaso dute beren buzoietan, eta behin eskaera orria beteta eta 15 euroko ordainketa eginda, udaletxera eraman behar dira. Garrantzitsua da ordainketa egiterakoan kontzeptu bezala autoaren matrikula jartzea. Epea hilaren 27an amaituko da, eta zalanztzak argitzeko 943 67 07 01 telefono zenbakira deitu daiteke, edo udaltzaingoa@ibarrakoudala.net helbidera idatzi. Eskaera orriak www.ibarrakoudala.net-en ere badaude.
- **Leitza.** Cederna Garalur elkar-teak zerga kudeaketari buruzko ikastaroak antolatu ditu gaurko eta ostegunerako. Udal liburutegian, 09:00etatik 13:00etara, izango dira bi saioak. Izena emateko 948 56 70 10 telefono zenbakira deitu behar da edo sakana.admon@cederna.es helbidera idatzi.
- **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak, urtero legez Baigorriin egingo den Nafarroaren Egune-ra joateko autobusa antolatu du. Jai eguna hilaren 29an izango da, eta autobusa 08:30ean aterako da zezen plazatik. Izena Galtzaundiko egoitzan eman behar da. Bazkide diren pertsonen 10 euro ordaindu behar dute, eta ez direnek, aldiz, 12.
- **Tolosa.** San Joan eguneko Bordondantzako entseguak os-

tegunean hasiko dira, hilaren 19an, 20:00etan, Usabal kiroldegian.

- **Alegia.** Hilaren 23ko Liburuaren Eguna ospatzeko, eskolako arduradunak ikasleak, gurasoak eta herritarrak, oro har, animatu nahi dituzte ipuin kontalari moduan aritzera. Prest daudenak 943 65 32 37 telefono zenbakira deitu behar dute.
- **Tolosa.** Gaur hasiko dira Tolosaldeko Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak langileen-tzat eta langabetuentzat antolatutako ikastaroak. Alde batetik, ABB Robotaz solakdeta ikastaroa eskainiko dute, eta, bestetik, kalitatearen kudeaketaren inguruko ikastaroa. 20 ordu dira guztira eta izena 943 65 11 47 telefono zenbakira deituta eman behar da.

DEIALDIAK

- **Alegia.** Isabel Mujika tolosarraren margolanak ikusi daitezke Jubilatuen tabernan, hilaren amaiera arte.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Amezketza



UDABERRIKO ELURRA

Asteburuak inguruko hainbat tontor zurituta utzi ditu. Tenperaturek dezente egin dute behe-
ra, eta gaur ere hotza egingo duela iragarri dute; goizean goiz izotzarekin adi egoteko eskatu dute adituek, nahiz eta elur maila igo egingo den. Igandera arte euria izango da nagusi. E.MAIZ



Ate irekiak
apirilaren 21ean, 11:00etan
etortzeko deitu 943 744 132ra
edo idatzi hemen: www.imh.es

DBH ondoren?
Erdi Mailako
Heziketa
Zikloa
ikasi...

... Goi-Mailako
Heziketa Zikloaren
ondoren egiteko
pentsatutako
INGENIARITZA:
Txandakako
Ingeniaritza

BATXILERGOA
amaitzean?
Goi Mailako
Heziketa Zikloa
eta ondoren
lanera edo
ikasten
jarraitu...

ERDI MAILA
- Mekanizazioa
- Mantenu berria
- Elektromekanikoa*
GOI MAILA
- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika industrial* berria

Gratu berria
- Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (bideratzen)

Agurrak



Zorionak!

Unai Urkizar Landa. Atzo 5 urte. Zorionak eta muxu goxoak familiaren partetik!!!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**